OLA
TU !!!
TALK
A !!!

Kontxa Gaumarket

Aurreko urteetako arrakasta aintzat hartuta, Kontxa Gaumarket azokak Kontxako arkupeak hartuko ditu aurten berriz ere, Cervantes Plaza eta Kontxako erlojuen artean. Berriro hiriko gune bat biziberritzeko ahalegina egingo dugu azoka honen bidez. Gune berezia eta ezohikoa dela kontuan hartuta, etorkizunean erreferentzia izango den azoka sortzea da helburua. Olatu Talka jaialdiaz harago bere bidea egingo duena eta gure hiriko ekimen erakargarri bilakatuko dena.

Data eta ordutegia
Maiatzak 26: 18:00-24:00.

Parte-hartzaileak

- Beren diseinuak zein produktuak erakutsi edo merkaturatzeko denda fisikorik ez duten sortzaileentzat da azoka. Ezinbesteko baldintza izango da denda fisikorik ez duten sortzaileak izatea.
- www.olatutalka.eus webgunean eman beharko da izena martxoaren 4ra arte.

Azokaren ezaugarriak

- Arkupeetan espazio bat eta argindar puntu bat (entxufea) izango du parte-hartzaile bakoitzak; halaber, estiloak bateratze aldera, Olatu Talkaren kartel bat izango dute postuaren izenarekin.
- Egitura gisa, antolakuntzak 2 mahai eta aulkiak jarriko ditu postu bakoitzean. Postu bakoitzeko arduradunaren esku geratuko da, berriz, postua diseinatzea, muntatzea eta desmuntatzea, betiere oinarrizko irizpideak betez. Oinezkoak pasatzeko zehaztutako espazioan ezingo da inolako objekturik jarri.
- Kontxa Gaumarket azoka identifikatuko duten argiak jarriko dira, argiztapena indartzeko.

Muntatzea/desmuntatzea
Larunbat arratsaldean muntatuko da azoka, eta desmuntatu, aldiz, behin jarduera amaituta, larunbat gauean. Zamalanak Kontxa Gaumarketeko antolakuntza taldeak koordinatuko ditu.

Aukeraketa
Azokak antolatzen esperientzia duen taldea eta Olatu Talkako ekoizpen taldea arduratuko dira postuak hautatzeaz eta koordinatzeaz; era berean, proposamenen kalitatea eta oreka bermatuko dute.
Antolakuntza izena eman duten guztiekin harremanetan jarriko da, hautatuak izan diren edo ez zehazteko.

Olatu Talka
Konstituzio Plaza, 1 - 20003 Donostia / San Sebastián
T. tel (0034) 943 481 666 E. olatutalka@donostia.eus
www.olatutalka.eus

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN | donostia kultura